

Futbola nazionalismoen biziraupenaren isla globalizazioan eta estatu- nazioen boterearen zaindaria

Ekain Rojo Labaien

Nor Ikerketa taldea, EHUko Ikus-entzunezko eta Publizitate Saila

Estatu-nazioen amaiera, eta are gehiago, nazionalismoena ere, iragarria izan zen globalizazioaren eraginagatik, baina nazioarteko futbol partiden adiera adibide argiena da baieztapen hori benetakoa izatetik urrun dagoela. Nolanahi ere, gutxienik nazio-selekzioek erakusten dute XIX. mendetik eratorritako nazio monolitikoaren egitasmoa amaitua dagoela, eta estatu-nazioek ezinbestean aniztasuna bere egin beharko dutela aurrerantzean. Izan ere, nazioa ordezkatzeko duten taldeak askotariko jatorriko futbolari osatuta daude. Hala ere, FIFA, beste kiroletako edozein erakunde baino gehiago, nazio-harrotasunaren eta futbolaren arteko lotura bizirik mantentzeko eginahalak egiten ari da. Euskal Herria bezalako estaturik gabeko nazioei ez diete uzten lehiaketa ofizialetan parte hartzen, eta hartara, estatuen hegemonia bermatua da.

GAKO-HITZAK: Estatu-nazioa · Nazionalismoa · Globalizazioa · Futbola · Imajinatutako komunitatea.

The last bastion of Nation-states: football as a sign of the permanence of nationalism

When the end of nation-states and even nationalism was announced because of the effects of globalization, football international fixtures are the clearest examples that this is far from being true, but even though, the national sides show that the image of the monolithic nation came from the nineteenth century is gone and the nation-states will have to cohabit with plurality. Indeed, the teams are formed with players of different origins. Anyway, FIFA, more than any other organization in other sports, is trying to keep alive the relation between the national pride and football. Nations without states such as the Basque Country are not allowed to play official championships and the hegemony of states is protected.

KEY WORDS: Nation-state, nationalism · Globalization · Football · Imagined community.

Jasotze-data: 2012-09-12. *Onartze-data:* 2013-01-11.

Sarrera¹

XXI. mendearen hastapenean mundu globalaren ideia, hau da, espazio- eta denbora-mugen hausturarena eta aurreko mendeetako ainguren amiltzea, postmodernitatearen gisako kontzeptu lausoez azaldua, Gizarte Zientzien baitan aski zabaldutako ikergaiak dira. Erlijioak galdua du aurreko belaunaldietako nagusigoa, eta estatu-nazioen erdiguneko kokapena kolokan da. Ataka honetan nazionalismoak, modernitatearen fruituak direnez gero, euren aroaz kanpo daudela eta desagertzeko bidean daudela iradokitzen dute hainbat ikertzailek, modernismoaren ikuspegitik. Berriki zendutako Eric Hobsbawm-en hitzetan adibidez, nazioek eta nazionalismoek historian jarraitu egingo dute, baina bigarren mailako betekizuna edukita (Hobsbawm, 1992: 191). Beste batzuek, ordea, globalizazioaren (Giulianotti eta Robertson, 2009) gisako esamoldeekin alderatzen dute globalizazioak eta kapitalismoak eragindako norbanakoen munduak nazio-atxikimenduen eta pentsaera nazionalisten berpiztea eragin duela, azpiratutako komunitate-bermearen beharrezana betetzen duten heinean. Zentzu horretan, futboleko nazioarteko ekitaldiak nazionalismoa elikatzeke funtsezko azkeneko gotorleku bilakatu dira, nazioaren ideia aldatzen ari denean. Futbol-selektzioaren osaerak ere estatu-nazioen homogeneousotasunaren mitoa ezina dela ebazten du. Hala ere, nahiz eta behinolako nagusigoa galdua daukaten, euren ahal sinbolikoa eta eragilea mantentzen dute estatu-nazioek, baita historiaren bilakaeragatik estatuaren eskola eskuratu ez duten estaturik gabeko nazioek ere.

Artikulu honen xedea da ikusaraztea funtsean nazioarteko futbolaren eta nazio-eredu garaikidearen biziraupenaren arteko lotura, alderantzizkoan, osagaiak hurrenkeraz aldatuta alegia, azal daitekeen uztartzea izaki. Hasieran egiten den analisi teorikoa, nazioaren osaerari eta nazionalismoari buruzkoa, futbolaren baitako behaketa historikoaz osatuko da hurrengo ataletan. Hala, azalpenaren bidez aipatutako futbol eta egitura politikoaren lotura agertzeko helburu nagusi hori gauzatu nahi da. Analisi historikoak hein handi batean teknika konparatiboa baliatzen du, eta Euskal Herriko futbolaren hurbileko adibidearen bereizitasunak osatzen du amaierako atalean. Miroslav Hroch-en definizioari jarraiki (2000: 19), teknika konparatiboa lan-prozedura konplexua da, ideia orokortu berrietarako ahalbidea ematen duena. Funtsean, nazioen ordezkari-izaera, futbolaren bidezkoa, begiz jotzeari dagokio hemen. Christian Bromberger antropologoak dioen moduan, identitate kolektiboak eta etsaigoak adierazteko lehenetsitako eremua da futbola, eta, hain zuzen ere, atxikimenduak adierazteko eta bideratzeko ahalean datza bere sona hein handi batean (Bromberger, 1998: 59). Esan nahi baita, futbolaren geroa halaber, talde-nortasunekin sortzez uztartutako harremana betikotzean datzala. FIFAk ondorioztatu du hori. Bosman legediaz² EB Europar Batasunak europar jokalarien joan-etorri askea erabaki ostean, 6+5 izeneko araua

1. Eusko Jaurlaritzaren finantza-laguntzarekin eginiko artikulua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Ikertzaileen Prestakuntzarako Programako laguntzaren bitartez.

2. Jean Marc Bosman futbolari belgikarraren helegitea ontzat emanez Europar Batasunaren 39. artikuluan aurreikusitako EB barruko europar langileen lekualdatze askea betearazi zuen futboleko ere Bruselak, eta hartara eremu horretako futbolariarentzat ezingo zen aurrerantzean naziotasunaren arabera inongo mugarik ezarri. EBtik kanpokoak bakarrik hartuko ziratekeen atzerriartzat, eta horien kopurua mugatuko zen soilki. Baina lankidetzaitunak tarteko, EBtik at ere hedatu zen jokalarientzat askatasuna.

kontrajarri zuen, futbol-taldeak gutxienez beren federazioaren barruko sei futbolari zelairatzera behartu nahi zituen. Nazio-taldeak eta nazioarteko lehiaketak indartzea, eta bereziki erakunde horrek antolatutako Munduko Kopa defendatzea, zen FIFAre arrazoibidea (Gardiner eta Welch, 2011: 160). Europako Batzordeak, alabaina, ez zuen onartu futbol-langileen joan-etorri askeari mugak jartzen zizkion araua indarrean jartzerik.

Nazioari eta nazionalismoari buruzko hurbiltze teorikoa: sinboloen garrantzia

Nazioa eta nazionalismoak definitzean nahiz horietatik eratorritako nazio-identitateak azaltzean, ikertzaileen abiapuntuak kontrajarri egiten dira. Horrenbestez, konplexua da askotariko ikuspegiak ahalbidetzen dituen kontzeptuetan barna hurbiltze erabatekoa ebatzea. Argitalpen honi dagokionez, eta oro har ere, egoki da sona handiko autoreen teoria hona ekarri eta abiatze osagarria agertzea. Lehenik eta behin, Benedict Anderson-en nazioaren definizioa aipatuko dut, Gizarte Zientzietan oro har, eta futbol gizarte-ekitaldia aztertzean bereziki, onarpen zabaleko teoria-hausnarketa delako. Imajinatutako politika-komunitatea da nazioa, eta muinean mugatua eta burujabe gisara definitua. Andersoni jarraiki, irudikatua da nazio txikiaren partaideek ere ez dituztelako ezagutuko euren komunitate kide gehienak, eta bakoitzaren buruan lekutzen delako euren loturaren arrazoa eta irudia. Hartara, aurrez aurreko harremaneko herri txikiak gaindi komunitateko denak imajinatuak dira (Anderson, 1991: 6). Imajinatuak direnik ez du adierazten horien garrantzia behertzekoa denik, baina norbanakoen arteko zeharkako lotura irudikatzen duen itsasgarrien beharrez dago, pertsonen arteko izatezko eta behin-lako zuzeneko harremanen sarea gaitzen lagunduko duena. Ildo horretan, Craig Calhoun-ek dio harreman zuzenik gabeko jendea politika-sinboloen bitartekaritza bere burua komunitateko kide imajinatuzera eramana dela, zeina aurretiazko ezaugarri bereizgarriekin, norbanakoen gustuarekin, ohiturekin eta kezkekin hezuramaitzen den (Calhoun, 1991: 108). Futboleko bide batez, Lehen Mundu Gerra osteko hamarkadatik finkatu zen nazioen neurketen zeremonia-tankera, nazio-ereserkiaren ekoizpenarekin, oroz gaindi (Dietsch, 2011: 38). Futbol modernoaren masa-tankeraren hastapena zen orduan, eta ia mende bete igaro denean ereserkiaren ekitaldiak kirolari atxikita dirau. Egiazki, FIFAk, hein handi batean kontraesanean, aldizka horiek mugatzeko abagunea iradoki izan du, nazionalismoen sugarrak goia jo izan duenean.

Nazioa edo nazionalismoa, aurretiaz zein sortu zen ebatzeari dagokionez, ez bai handia izan da hurbiltze kontrajarrien artean. XVIII. eta XIX. mendeetan nazionalismoek estatu-nazioak sortu baino lehenago nazioak bazirela defendatzen dute hainbatek. Alabaina, urteotan gainjarri den hurbiltze modernistak nazionalismoen ekimena lehenetsita, nazioa, estatu-nazioaz gain, ekoizkin modernoa dela defendatzen du. Eric Hobsbawm eta Ernest Gellner, besteak beste, ikuspegi modernistakoak dira. Nazioek ez dituzte estatuak eta nazionalismoak sortzen, bidea alderantzizkoa zatekeen (Hobsbawm, 1992: 10). Are gehiago, Gellner-en hitzetan, nazionalismoek ez dituzte alde aurretiazko izaera zuten nazioak iratzartzen, ez dira horretara mugatzen. Historiak ondareztat utzitako kultur aberastasuna baliatzen dute, baina oso modu hautazkoan, eta sarri askotan, errotik aldatzen ditu

kulturok (Gellner, 2009: 72). Adam Smith-ek etno-sinbolismotzat definitzen duen hurbiltzetik modernisten nazioari buruzko hausnarketa alderatzen du nazioen etnia-ainguraren garrantzia nabarmenduta. Esan nahi baita Smithentzat oroimen partekatuetan, sinboloetan, mitoetan, tradizioetan eta lurralde historikoetan oinarritzen zirela nazioak (Smith, 2009: 29-30) nazionalismoek egitura politiko bihurtu baino lehen ere. Hobsbawmek (1992: 77-78) abiapuntu hori kontrajarri nahi du, esanez txikia dela oraingo nazio-mugimenduen kopurua, estatuaren jabe izan nahiz izan ez, mugimendu hori garatzeko ahalmena zuketen giza taldeen kopuruarekin alderatuz, funtsean etnien zenbatekoarekin konparatuz. Edonola ere, estatuaren jabego hutsa nazioa eraikitzeke nahikoa ez dela gaineratzen du. Hala, Smithentzat, nazioak ezin dira soilki eliteen proiektuak bailiran hartu, eta kontuan hartu beharra dago eliteen eta gizarte zabaleko hainbat alderdiren arteko harremanaren konplexutasuna, non herritarrak, sinboloekin, mitoekin eta oroitzapenekin eragin nahiko dituzten (Smith, 2009: 20-21). Horrenbestez, nazio-eraikuntza, sortzezko faktoreetan oinarriturikoa izan daiteke, baina ekimen nazionalistak molda dezake, eta amaieran estatua eskuratu izanak ez du esan nahi nazioaren sorkuntza halabeharrez burutua denik. Michael Billig-ek ohartarazten du estatu-nazioak burutu ondorenean nazionalismoarekin zer gertatzen den deskribatzeko pausorik ez dela ematen Gizarte Zientzien ikerketan. Nazionalismoa berehalakoan ezereztu egingo balitz bezala jokutzen dela dio (Billig, 1995: 44). Ez da ezereztan, noski. Eric Hobsbawmek eta Terence Rangerrek egoki nabarmentzen duten gisara, jendea herritartasunaz kontziente den pasarte gehienetan sinboloekin eta errito moduko jardurekin uztartzen denean gertatzen da, horietako gehienak berriak eta asmatuak izaki: banderak, irudiak, ekitaldiak eta musika (Hobsbawm eta Ranger, 1983: 12). Bada, estatu-nazioek ikurrak eta horiek barnean hartuko dituzten nazio-ekitaldiak beharrezkoak dituzte, areago estatu-nazioaren kokapena munduan gutxienik eraldatzen ari denean.

Christian Bromberger antropologo frantziarrak emandako azalpena neure eginez, esan daiteke nazioarteko futbol-txapelketetako ospakizunek aldizkako beharrezko biziberritze sinbolikoa eskaintzen dietela nazioei, garailei bereziki. Alegia, beren burua imajinatzeke eta norbanakoen arteko iruditeriazko lotura eraberritzeko aparteko egokiera ematen dietela, ohikotasuneko bizieratik gaindikoa. Bestalde, Billigen teoria da egituratutako estatu-nazioetan etengabeen banderen haizatzea eta nazioaren oroitaraztea dagoela, oharkabea, nazio-ekitaldi nagusietatik haratago eta gaindi. Hain dago txertatuta, hain da jarraitua, ezen norbanakoak ez baitu modu kontzientean nazio-nortasunaren oroitarazlea bailitzan jasotzen. Nazionalismo hutsaltzat definitzen duenaren metonimia-irudia ez zatekeen sugar handiz astintzen den bandera kontzientearena, baizik eta era ez-kontzientean eraikuntza publikoan betikotzen dena (Billig, 1995: 8). Batetik, futbolarekin hein batean harremana du Billigen hausnarketak. Izan ere, izatez eraginik gabeko gizarte-gertaera bailitzan hartzen den eremuan sinbolo eta banderen haizatzea har daiteke politika-eremu «seriotik» bereizitako garrantzi gabeko haizatze gisara. Esan nahi baita, nazionalismo hutsalaren (*banal nationalism*) alderdia bailitzan. Futbol-zelaiako harmailetan etengabeen plazaratzen diren sinboloei eta banderei erreferentzia egingo lieke ikusmolde horrek. Izan ere, Billigi jarraiki, itxuraz baliorik eta oihartzunik gabeko adierazpenek oharkabea estatu-nazioaren biziraupena bermatzen dute. Bestetik, eguneroko adierazpenaz dihardu bereziki hark, eta

gutxiago nazionalismoaren herri-agerpenean une gailurrak gertatzen diren egokiera horietaz, zeinek, funtsean, esan bezala, nazio irudikatua eta abstraktua konkretuago bihurtzen duten, eta non anaitasunezko sentipenak nazioaren barne- ezberdintasunak, klase, kultura nahiz arrazakoak, gainditzen dituen 90 minutuko iraupenean eta ondorenean. Bidenabar, Eric Hobsbawm historialariaren hitzetan, gaur egun milioika lagunak imajinatutako komunitateak benetakoena ematen du 11 jokalariren taldearekin (Hobsbawm, 1992: 143). Gizonezkoen irudira eraikitako komunitatea litzateke ondorioz, eta hedabideen bozgorailu-ahalak zabaldua. Nolanahi ere, ezin da ahaztu, nazio-taldea lehiaketa handietan beste ordezkarietzi jarkitzen zaienean emakumezko ikus-entzuleak gizonen parera heldu ohi direla, eta gizonezkoen hamaikako multzoak nolabait nazioaren alderdi guztiak hartu ohi dituela. Ingalaterrako 1966ko Munduko Kopan, hasteko, emakumeek ia gizonen pare ikusi zuten Alemaniaren aurkako finalaren telebista-emankizuna (Mason, 2006: 91). Telebista-emankizunen sonaren hastapena zen nazio-lehieki uztartuta, zuri-beltzean artean, eta ikus-entzunezkoak ezaugarritutako futbol aroarena horrenbestez.

Futbola imajinatutako komunitatea zilegitzeko egokiera nagusia

Hainbat ikertzailek kirol-ospakizunon eraginaren iraungitze-data laburra nabarmentzen dute, bilgunearen biharamunean atzera ere arazo berberak berragertzen direla arrazoituta, eta nazio-eraikuntzari dagokionez eragin murriztekoak direla adierazita. Ildo horretan, ezagun da SNP Eskoziako Alderdi Nazionalako eledun abertzale Jim Sillars-ek 1992ko Legebiltzarrerako hauteskundeetan parlamentari-kargua galdu zuenean bere herrialdeko jendea «90 minutuko abertzalea» zela kritikatu izana, jarrera nazionalista soilik kirol-ekitaldietan azaltzen zuena, eta politikan aginte burujabea aldarrikatzeko nortasun-indarra falta zitzaiona (Moorhouse, 1996: 71). 2007an bere alderdi independentistak Eskoziako Gobernuaren agintea hartu izanak iritzia aldaraziko zion beharbada. Bestalde, Frantziako nazio-taldeak 1998ko sorterriko Munduko Kopa irabazi zuenean *blacks*, *blancs*, *beurs* —beltzak, zuriak eta afrikar jatorriko frantsesak— zeritzenek osatutako multzoak Frantziak eskainitako irudia goratu zuten bertako politikariek eta hedabideek. Lionel Jospin lehen ministroak esan zuen nazio-taldea aniztasunean sustraitutako nazio-batasunaren adibiderik onena zela (cfr. Dauncey eta Hare, 1999: 193-194). Garaipenak ez zuen berehalakoan integrazioa lagundu, baina aniztasuna baikorki epaitzea ahalbidetu zuen. 2002an Hego Korea eta Japoniako Munduko Kopan galdu izanak selekzioari buruzko aburua okertu zuen, eta baita integrazioari buruzko baikortasuna atzera ere afrikar etorkinen sendikoei frantziar ereserkiari txistua jo ziotenean Aljeriarekiko 2001eko adiskidantzako partidari hasita. Frantziar nortasunaren sinboloetako bat erdeinatzeak integrazioaren akatsa azaltzen zuen, eta asaldura sorrarazi lehenago garaipenaren mesedetan batasuna adierazten zuten agintarien artean. Aitzitik, ondorengoak ez du kentzen 1998ko ospakizunean izaera eta jatorri ezberdineko norbanakoak futbolaz frantziarrak sentitu zirelako adiera, futbol-garaipenak gizartea aldatuko ez duela argi izanik ere. Billigek aipatzen dituen oharkabean eta jarraitutasunean tinkotzen diren sinboloen haizatzeek gain, beharrezkoak dira salbuespenezko nazio-harrotasun gailurren ikurrak, zeinak futbol-ekitaldietako ospakizunez beste, abagune murrizetan gertatzen diren. Haren hitzetan ezina da pentsatzea aldizkako

gertaera horiek etengabeen oroitazitako nazio-identitateari eusteko gai direnik (Billig, 1995: 46). Alabaina, nazioaren partaide sentiaraztea sortzen dute aparteko egokierotan, eta nazio-narrazioaren oroitzapen bihurtu.

Futbola, nazio-taldean bitartez, zalantzarik gabe, azken eremuetakoa da, beharbada azkena, non era askean eta irekian adieraz daitekeen, egoki eta bidezko, 'politika zuzentasunez', bakoitzak sentitzen duen identifikazio eta nazio-harrotasun beharrizana (...). Hausnartzean, erantzukizun eskerga da esleitu zaion zeregina, gure gizarteetan pilatutako eta oraindik oso handia den nazio-maitasunezko zama berak bakarrik bere gain hartzea, gizartearen ekonomiaren garapena zer nahi dela ere (Brochand, 1998: 76).

Pierre Brochand-en arrazoibidea egokia da hasteko Japonian 2002an, Alemanian 2006an eta Espainian 2010ean, Munduko Kopako ospakizunen inguruan, gertatu zen nazio-banderaren herri-atxikipena ulertarazteko. Lehenak ekitaldien harrera eta antolakuntzaren egokieran gertatu ziren gizartean, eta azkena Espainiak Hegoafrikan Munduko Kopa estreinakoz irabazi zuelako. 2002an Japonian nazio-ereserkia nazionalismo militar oldarkorrarekin bereizi zen herri-tarren pentsaeran, eta Bigarren Mundu Gerraz geroztik nazio-identitate adierazpenen inguruan zegoen segurtasun-gabezia gainditzeko abagune urrietakoa eskaini zien (Horne eta Manzenreiter, 2004: 195). Japoniak ez zuen Munduko Kopa irabazi, Hego Korearekin ekitaldia antolatu zuen soilki. Alemaniak ere lau urte geroago ez zuen etxean atondu zuen ekitaldia bereganatu, finalerdietan galdu zuen, baina iraganeko nazionalismo-adierazpenen oroitzapen ezkorra eraldatzen lagundu zuen futbol-selektzioaren inguruko atxikimenduak. David Schrag-en hitzetan, Munduko Koparen ospakizuneko giroak ahalbidetu zuen nazioarekiko bultzada sentitzea, barreiatzea eta praktikara eramatea, oroz gain apolitikotzat, positibotzat eta barneratzailetzat jotako bidean (Schrag, 2009: 1.091-1.092). Halaber, Espainiak 2010ean Munduko Kopa irabazi izanak, artean frankismoaren oroitzapenez uztartuta zegoen bandera sinboloa gizarteratzen lagundu zuen, eta ordu arte ez bezala karrketan haizutzen. Nahiz eta garaipenaren hurrengo ordu eta egunetan funtsean iraun zuen, sinbolo bateratzaileen gabezia duen estatu-nazioari gizartearen atxikimenduaz imajinatutako komunitatea zilegitzea ahalbidetu zion. Areago kirolari loturiko nazionalismo baikorra agertuta.

Adiera berezikoa da futbol-selektzioaren inguruan sortzen den nazioaren ospakizuna, hein batean kirolaren funtsean dagoen alderaketa eta identifikazio-ahalmenetik eratorrita, borondatezko herri-atxikimendua bideratzen baitu, ez goitik beherakoan agintariek edo eliteak inposatua. Eta Brombergerrek dioen moduan, futbolzaleak ez dira inguratzen dituen munduari buruz ikuspegi kritikoa garatzeko ahalmenik ez duten kultur arloak eta kiroleko sugarrak barneratzen dituenak (Bromberger, 1995: 196). Izan ere, aldarrikapen-eskubidea mugatu edota ezeztatu duten herrialde askotan bederen, estadioa politika-protesta agerrarazteko onartutako azken eremua izan da. Areago, 1980ko abendutik 1981eko urtarrilera Uruguain FIFAk antolatu zuen *Mundialito* izeneko txapelketak, zeinak Munduko Kopa behin behintzat irabazia zuten nazio-taldeak alderatzen zituen, ohartarazi zuen futbolaren eta nazionalismoaren arteko loturaz herritarrak limurtzea ez dela hain erraza. Boterean zen militarren diktadurak bere agintaldia betikotzeko txapelketaren bezperan deitu zuen erreferendumean lortutako garaipena ospatzeko

izan behar zuen ekitaldiak, ondo bidean Uruguako futbol-selekzioaren garaipenaz biribilduko zena. Alabaina, militarrek erreferendumean galdegin zuten konstituzio-aldaketaren aurka bozkatu zuten uruguaitarrek. Eta txapelketan nazio-taldeak jokatzean eta pozez garaipenak ospatzean herritarrek preso politikoak ahazten zituztela ematen bazuen ere, Brasilen aurka finalean gailendu berritan jendeak zelaira jauzi eginda hartutako ekimena adierazgarria izan zen. *Uruguai, Uruguai, Uruguai!* nazioaren gorazarreko oihuekin batera *Se va acabar, se va acabar, la dictadura militar* deiadarka abiatu zen jendetza³. Futbolari lotutako nazionalismoaren herri-adierazpenak ez zituen, bistan denez, beste arazoak ahantzarazi. Nazioaren eraikuntza eliteen ekimenera soilki mugatu ezin denez, futbol bidezko nazio-adierazpena ere ezin da erabilerraza litzatekeen gizartearen manipulaziora xehatu. Eta bide batez azaltzen du futbolarekin uztartzen den nazio-harrotasuneko agerpena boterean dagoen agintearen onuraz gaindikoa dela.

Elitearen edo agintarien nazio-eraikuntza ekimenaren eta herritarren arteko zubi-bidea eginez hedabideak daude, eta horien ekoizpenaren erdigunean futbol-emanaldiak daude, munduan ikus-entzule gehien erakartzen dituzten emankizunak diren neurrian. Paul Dietschy historialariak dioen moduan, kirolak nazio-taldeen bitartez, masek nazio-izaera har zezaten, eginiko ekarpena antzua izango zatekeen sortzez egunkarien parte-hartzerik gabe, eta 1920ko hamarkadako azken urteetatik hasita, iratiaren bultzada gabe (Dietschy, 2011: 38). Telebistak 1950eko hamarkadan hartu zuen lekukoa, baina, ez zituen kirol-alarrean beste bi hedabideak ordezkatu, osatu baizik. Alemaniak 1954an Suitzan irabazitako lehen Munduko Kopa nazien osteko nazioaren jaiotza bailitzan hauteman zuten garaipena ospatu zuten milioika herritarrek (Gethard, 2006: 52). Telebista-hargailuak artean bakanak zirenez gero, irratiko emanaldiak bideratu zuen futbolaren bitartez komunitate imajinatuaren partekatutako ekitaldia bihur zedila. 1966an, Ingalaterrak antolatutako eta irabazitako Munduko Kopan, hasierako antolatzaileen oztopoak gainditu zituen telebista-ekoizpenak, eta finala bereziki ingeles talde-memoriaren zati bihurtu zen (Mason, 2006: 94). Pascal Boniface nazioarteko harremanetan adituak dioen moduan (2002: 23), telebistak sakonean nazio-taldearen estatusa eraldatu zuen. Eta selekzioak aurrerantzean nazioen bilakaeraren eta integrazioaren berri eman zuen, nazioa islatzen zuenez. Lehenago, Argentinan, 1910etik *El Gráfico* aldizkariak argentinar estiloaren mitoa sortu zuen futbolarien jokaera eta nazioari esleitutako ezaugarriak uztartuta (Darbon, 2008: 270-271), eta aitzindaritzza horrekin kazetariak nazioa zilegitzen hasi ziren futbol-alderaketa baliatuta.

Esan beharra dago, Europan eta Hego Amerikan ez ezik, Afrika, Asia eta Ozeanian ere talde-nortasunen adierazleak eta bateratzaileak direla futbol-taldeak. 2003an esaterako, milioika tutsik eta hutuk elkarrekin ospatu zuten Ruandak Ugandari Afrikako Kopan irabazitako partida, taldearen itzuleran (Jarvie, 2006: 187). Hamarkada bat ez zen igaro hutuen esku 800.000 tutsi inguru hil zirenetik. Halaber, nazioartean ez ezik, herrialdearen baitako talde-nortasunen isla ere bada futbola, Australian gertatzen denez. Nahiz eta kirol orohartzailea ez den, eta herrialdeko futbol-aldaera bereziaren eta errugbiaren osteko sona izan, futbola

3. Sebastian Bednarik 2010.urtean plazaratu zuen *Mundialito* dokumentalean 1980ko hamarkadako txapelketaren bilakaera bildu zuen, testuinguru politikoaren baitan txertatuta betiere.

Europa ekialdeko etorkinen integrazioarako joko-eremu bilakatu zen. 1950eko hamarkadatik aurrera hiriguneetan bizi ziren eta ingelesez mintzo ez ziren komunitateen kultur adierazpenerako eremu nagusia bihurtu zen (Hughson, 1997: 242). Hala ere, futbolak immigranteen kirolaren izaera hartu zuenez, beheratu egin zuen anglosaxoi jatorriko gizartearen gehiengoak urte askotan, etorkinen bazterketan oinarritutako nazioaren isla. Gerora, Europako herrialdeen deitura zuten futbol-taldee, Grezia, Serbia eta Mazedoniatik eratorriak besteren artean, izena aldarazi zieten. Horrela, hobetsi zuten immigranteen aldizkako joanaz osatutako gizarte kulturantzunaren orde Britainiar Irletako jatorriko australiar nortasunaren ezarpenetik ekindako asimilazioa. Will Kymlicka-k (2003: 187) asimilaziotik kultur aniztasunerako igarobidea nabarmentzen du azken mende laurdenean jatorri anglosaxoiko Amerikako Estatu Batuetan, Kanadan eta Australian, eta horrek etorkinei euren etnia-oinordetzako alderdi batzuk mantentzea bermatzen zien. Aitzitik, Australian, europar nortasuneko, eta britainiar jatorririk gabeko, klubei izendapena aldarazi izana ikuspegi horren aurkaria da, batik bat euren oinordetzaren euskarri esanguratsuenetakoa izaki. Christ Hallinan-ek eta John Hughson-ek dioten moduan (2009: 4), futbol-partidetan jarraitzaileek Kroazia, Grezia, Serbia edo bestelako nazio-atxikipenen aldeko kantua entzunaraztea australiar batasunarentzat mehatxutzat hartua da. Bidegurutzean dago Australiako futbola, etorkinen talde-adierazpenen antzeztokia izatean errotu baitzuen arrakasta. Baina, inondik ere, adierazten du kirol nagusia ez izanagatik nazioaren bilakaerari buruzko eztabaidetan Australian ere duen erdiguneko tokia. Futbola kirol gailenena den munduko gainontzeko herrialdeetan, gehiengoaren diren horietan, are esanguratsua sortzen ditu nazio-izaerari buruzko eztabaidak, eta agintarien gutxiengoei eta immigrazioari buruzko hautuen bilakaeraren berri eman.

XXI. mendeko nazio-nortasun barnerakoien isla

XX. mendearen amaiera arte futbol-klubak batik bat inguruko futbolarietaz hornitzen baziren, nazio-taldea ildo berean, herrialdearen gehiengoaren izaera etnikoaren isla zurruna ziren zelaian, taldearen osaerari zegokionez. Raffaele Poli-k arrazoitzen du agintarietaz gizartea ahalik eta homogeen egiteko guruziaz futboleko klubetan mailan eta selekzioetan eragin zutela. Batetik, futbolari atzeritarren parte-hartzeari kuotak jartzen zizkieten klubetan mailan, eta nazio-taldeei aberriaren desiotako ustezko purutasun etnikoa haragitzeko zeregina esleitzen zieten (Poli, 2004). Klubetako kuotekin bertako futbolarietaz parte-hartzea bermatzea zuten helburu, eta bide batez nazio-taldearen eraginkortasuna eta ordezkartza-maila ziurtatzea. Nazio-taldeen Munduko Kopan emaitza txarrak izatean hartu ohi zuten gobernuak atzeritarrei mugak ixteko erabakimena, Italiak 1966ko Munduko Kopan Ipar Korearekin galdu ondoren, adibidez.

Lehenago aipaturiko, eta kazetek asmatutako nazioaren estiloez gain, hamai-kakoaren bitartez plazaratzen dute nazioek euren buruaz eman nahi duten irudia futboleko. Frantziak, goiztiarrena, eta hala nola salbuespena izanda, 1930eko hamarkadatik zelaian zuten jokalariek beltzak selekzioan. Horrenbestez, etorkinen belaunaldien integrazioa xede zuen Errepublikaren nazio-izaera plazaratu zuen zelaian. 1998ko Munduko Kopa garaipena kirolaz gairako talde-nortasunaren ereduaren lorpenetaz joa izan zen. Ildo kontrajarria azaltzen zuten nazio-taldeen

emaitza txarren aurrean lortutako garaipenek, Alemaniaren eraginkortasun-gabeziarekin alderatuta bereziki, balio berezia ematen zioten ezaugarri horiekin irabazteari gainera. Frantziak lur-eskubidea (*ius soli*) herritartasuna emateko irizpidetzat bazuen, eta herrialdean jaiotakoak estatu-nazioko herritartzat onartzen bazituen, Alemaniak bestalde, odol-eskubidea (*ius sanguinis*) abiapuntu duen irizpidea erabili izan zuen, hots, nazioko kide bihurtzeko, edo gutxiarik estatuko herritar izatearen eskubide-bermea erdiesteko, alemaniar familia izatearen oinordetza behartzen zuena. Alemaniako gutxiengo handiena, turkiar jatorrikoena, horietako asko bertan jaiotak izanagatik, gizartetik bakandua bizi izan da, alemaniar nortasunik gabe. Futboleko Frantziar futbolari beltzak eta Afrika iparraldeko jatorria zutenak hamaikakoetan txertatzen ziren bitartean, 2002ko Munduko Kopa arte Alemanian ez zen kanpoko jatorriko edo gutxiengo etnikoetako futbolariarik, eta odolean oinarrituriko nazio-izaeraren isla zen Brombergerrek dioenez (2001: 52). Orduz geroztik, ostera, Miroslav Klose eta Lukas Podolski sortzez poloniarak, adibide nagusiak ematearren, nazio-taldearen hamaikakoetan garrantzi handiko jokalariek izan dira, baita Alemanian jaiotak baina atzerriko jatorria zuten futbolariak ere, turkiar sendia duen Mesut Ozil eta aita tunisiarreko Sami Khedira tarteko. Alemaniako Gobernuak Gerhard Schröder lehen ministroa zela herritartasun-kodea ireki izanaren ondorio zatekeen futbol-taldearen itxura aldatzea. Alemaniak bezala, naziotasuna emateko kode edo irizpide zurruna duen Suitzak ere, selekzio nagusian, 21 urtez azpiko nazio-selekzioan eta jokalarien haztegietan kanpoko jatorriko futbolarien gero eta onarpen zabalagoa du, eta gizarte-integrazioerantz eginko urratsa adieraz lezake.

Estatu-nazioaren mugen barruan nazioa eta estatua parekatzeko nazionalismoaren ekimena helburu ankerrekin bakarrik egin zitekeen Hobsbawmen hitzetan (1992: 133-134), eta Jurgen Habermasentzat historiari erreparatuz gero, fikzioa da (1998: 91). Hala ere, estatu-nazioek orain gutxi arte helburu hori gauzatu dute nazioarteko futbolaren erakustokietan. 1990eko hamarkada arte ez ziren jokalaririk beltzak Ingalaterrako nazio-taldean maiztasunez jokatu. Segregazioa hobesten zuten Alemaniaren pare, eta Frantziar gain Portugalen hautuarekin ere berezita. Iberiar herrialdeak 1966ko Munduko Kopan Portugal kulturantzunaren estiloa agertu zuen futbol-zelaiaren ikusleen begietara, Afrikako kolonietako jatorriko futbolariak eta Europan jaiotak bat eginda hamaikakoan (Poli, 2004). Oro har nazio-taldea nazio homogeneoaren azken gotorlekua izan da kasu askotan, nortasunak hezurramitzeko duen sinboloen gisako eraginaren adierazgarri. Hala ere, globalizazio-garaiaren eraginpean, eta immigrazioa XXI. mendeko fluxu saihestezina denean, selekzioek estatu-nazioaren aldaketa eta egokitzapena adierazi dute. Areago, XX. mendeko Brasilen, aniztasunaren bidean gizarte-aldaketaren isla ez ezik, beltz eta mulatoen integrazioerako baliabidea ere izan zen futbolaren sona, nazio-taldearen bidez. Jose Sergio Leite Lopes-ek zioen Brasilen nortasun bereizitua tinkotu zuela futbolak joko erakargarriz garaipena erdietsi zuen beltz eta mulatoak zelairatutako selekzioarekin, eta elitearen arraza-estereotipoak eta gizarte osoan baneratuta zen etnozentrismoa ezerezten lagundu zuela (Leite Lopes, 1997: 79). Futbol-garaipenek Frantziar bezala nazio-harrotasuna eta anaitasuna goratu zuten Brasilen, eta kanpora begira herrialdeaz eman nahi zuten irudian zuriak ez ezik, afrikar morroien ondorengoak ere onartzen zituztela ikusarazi zuten. Iraganekoak ziren Epitecio Pessoa presidentek 1921ean eginko

beltzen aurkako adierazpenak eta debekua, herrialdea nazioarteko txapelketetan zuriak ez zirenek ordezkatzera komenigarria ez zela aditzera emanek (Natali, 2007: 269). Nazioarteko erakustokian nazioari buruz hausnartzea bultzatzen du futbolak, nazio-taldea talde-nortasunaren ordezkari adierazgarrienetakoa bilakatu baita. Pascal Boniface-ek egoki ebazten duenez, nazio-taldea ez da soilki estatuaren sor-kuntzaren emaitza, sarritan nazioa egituratzen laguntzen du (Boniface, 1999: 92).

Hain da handia FIFAk nazio-taldearen ordezkari-tza-zentzuari ematen dion garrantzia, ezen beste kiroletan atzerritarrek beste selekzioekin joka badezakete ere, futbolean ezinezkoa duten, eta gainera nazioartekoan lehen aldiz euren ez den herrialde batekin jokatzeko ahala emateko futboleko erakundeak baldintzak zurrundu dituen. Errugbian adibidez, atzerriko liga-lehiaketa batean hiru urtetan aritzen den kirolari batek federazio horretako nazio-taldean parte hartu ahal du, lehenago, gaztetan ere, zegokion nazio-taldean jokatu ez zuelako baldintzapean. Futbolean bestalde, dagokion beste herrialde horretako nazio-nortasuna hitzeman beharko du kanpotarrak, selekzio horretan parte hartu ahal izateko. FIFAk 2004an ezarritako baldintza gehigarriarekin, bi urtez gutxienez federazio horren eremuko herrialdean bizi izandakoa izan beharko da. Qatarrek diruaz jokalaririk atzerritarrek bere nazio-taldea indartzeko eginiko saioaren aurrean hartu zuen erabakimena kirol-erakundeak, eta Afrikan ere, Togon zehatz esateko, hango taldeak 2004ko Afrikako Koparako sailkatzeko 13 jokalaririk brasildar erabili ostean (Poli, 2004). Selektzioaren ordezkari-tza aurrerantzean ere mantentzea helburu argia zuen FIFAk, klubetan alorrean haztegiak lagundu eta jokalaririk atzerritarren joan-etorri askeari mugak ezarri nahi zizkion modu berean.

Hein batean, bidezkoa da esatea nazioarteko futbol-agintariek babes-horma bat ezarri nahi dutela futbolaren eta estatu-nazioaren arteko bikoaren parez parean. Historian nazioarteko lehiaketa ofizialetan aritu diren herrialde gehienek estatua ordezkatu dute. Esan bezala, FIFAk ekonomia-helburu argia du, lotura horrek erakargarritasun handiena duelako, eta hedabideek ere audientzia-maila handiena nazio-taldearen alderaketarekin lortzen dutelako. 1998ko Munduko Kopa ekitaldiaren partiden emankizunetan France 3 kanal publikoak eta TF1 kate pribatuak inoizko ikusleria handiena erdietsi zuten adibidez (McKeever, 1999: 175). Espainian, bertako nazio-taldearen parte-hartzearekin, 2008ko Europako Koparen final laurdenen penalti-jaurtiketak, eta batez ere, lehiaketa horretako finalaren emanaldia osoki hartuta, eta 2012ko Europako Koparen final erdietako luzapena eta penalti-jaurtiketak, izan dira neurtzen denetik emanaldirik jarraituenak; digitalizazioak eta lurrazaleko eta satelite bidezko telebistak ezaugarritu-tako kontsumo-aukera ia amaiezinen garaian. Thomas Kirsch-ek dioen moduan, abertzaletasunak nazioarteko kirol-ekitaldietara ikusleak erakartzen laguntzen du. Arrazoizkoa deritzot, Kirschek gaineratzen duenez, esateari askotan abertzaleta-sunak bultzatzen duela jendea ekitaldia ikustera, osterantzean kirol-emankizunetaz inolako interesik ez dutenean ere (Kirsch, 2008).

Taldeko kirola izaki, eta arauen erraztasunari lotuta, futbolak sortzez daukan ordezkari-tza eta identifikazio-ahalmenari gehituta, telebista-emankizunak handiagotzen du ezaugarri horiek hauspotzeko moduko kirolaren ziurgabetasun-izaera edo ezbaia. Brombergerrek dio jokaldi eztabaidagarrietan kamera geldoa eta arreta berezia ipiniaz egiten duela hori, partiden garapenean erabakigarriak

diren ekintzetan zoriak duen eragina agertuta. Justizia ez-perfektuaren bidez-kotasunari buruz eztabaida dramatizaturako egokiera plazaratzen du futbolak haren hitzetan (Bromberger, 1998: 51). Esan nahi baita futbolak, eta telebistaren kontaktak bizitzen duen emozioak eta artegak, futbolaz gaindiko sentipenak, gizartearen norantzari buruzkoak, bideratzea ahalbidetzen duela taldeekin identifikazioa tarteko dela. Betiere «gu» eta «haiek» alderaketa gainjartzen du narrazioak, eta muturreraino eramaten du norgehiagoka eta identifikazioa nazioen artekoa denean. Bada, estatu-nazioaren, futbolaren eta hedabideen interesekoa da gaur egungo nazioarteko txapelketen izaera gordeta biziraupena ziurtatzea. Salome Marivoet-ek dioenez, nazioarteko kirol-lehia nagusiak izaera konplexukoak dira, non, estatu-nazioen, kirol-erakundeen, hedabideen eta multinazionalen politika- eta ekonomia-interesak uztartzen diren (Marivoet, 2006: 127). Anaclet Pons-ek oroitarazten du futbolaren hazkundea gertatu zela politika-komunitate garaikidearen hedapenarekin batera, hots, estatu-nazioaren egituraketarekin (Pons, 2003: 73-74). Modernitatearen funtsa zen orduan. Gaur egun, Paul Dietschy-k azaltzen duen gisara, futbol nazio-taldea eta haren lehiaketen arrakasta izan daiteke estatu-nazioaren ereduaren arrakastaren adierazgarri ikusgarrienetakoa, baita munduaren mendebaldetzearena ere (Dietschy, 2011: 44). Kolonizazioetik askatutako herrialdeek Europako estatu-nazioaren politika-eredua parekatu nahi izan zuten, eta estatuaren mugen barruan kontrajarritako etnien artean nazioa eraiki. Helburu horrekin nazioartean nazio-taldea eta futbola erabiltzea izan zen lehenengoz hartutako erabakietakoa. Globalizazioak estatu-nazioen ahalmena erasaten duen garaian, kirola areago erabiltzen ari dira nazioak talde-nortasunak berresteko (Marivoet, 2006: 127). Kirol globalena izanagatik nazio-nortasunen azken gotorlekua da futbola.

Euskal Herriko salbuespena: harrobian oinarritutako taldeak

1995eko Luxenburgoko Justizia Epaitegiak ontzat eman zuen Europar Batasunaren ituneko 39. artikuluan aurreikusitako langileen lekualdatze-askatasunean oinarrituta, Jean Marc Bosman futbolari belgikarraren helegitea. Hori zela medio, FIFA eta UEFA europar jokalarien artean nazio-nortasuneko mugak ez ipintzera behartu zituen. Aurrerantzean jokalaria kanpotarrak iritsi ziren kontinenteko liga nagusietara, eta taldeen osaerak dagoeneko ez zuen bere inguruko gizartea, jatorriz behintzat, funtsean ordezkaturiko. Arsenal taldearen gisara, inguruko jokalaria ez ezik, estatu horretako futbolari ez zelairatzera igaro ziren klubak muturreko adibideetan. Nolanahi ere, zaleen klub horienganako atxikimendua ez da erasan. Jarraitzaileek atsekabe handiagoa agertu izan dute zuzendaritzan euren aldarrikapenak entzuten ez dituzten agintari multzo arrotzak ezartzen direnean. Aintzat hartzeko modukoa deritzot, ildo horretan, Paul Yonnet-ek aurkeztutako arrazoibideari. Haren hitzetan, ikuslearen jokalariaireneko gaineko identifikazioa sustraitzen da kluba edo taldea ordezkatzeko duen heinean. Futbolariak ez du lehenik bere burua ordezkatzeko, bera txertatuta dagoen kluba baizik (Yonnet, 2010: 24-25).

Nolanahi ere, argudio horrek, oro har, gaur egungo futbol-kluben eta ikusleen arteko lotura ulertzeko ahalbidea emango badigu ere, nazio-taldeetara ez da hori barreiatu. Areago, Euskal Herriko bi klub nagusien salbuespenezko bertako

jokalarien haztegi-ekimenarekin, harrobi gisa definiturikoarekin, egingo dugu topo. Bilboko Athleticcek bereziki, zeinak Euskal Herrian jaiotako jokalariekin edo Euskal Herrian hazi edo heldutako futbolarietara bakarrik jokatzeko duen, eta baita Donostiako Realak ere, Euskal Herriko jokalariek osatutako talde oinarria duelarik, Paul Yonnetek lehenago esandakoa kontrajartzen dutela dirudi. Esan nahi baita, eskualdearen edo euskal herrialdearen ordezkariak eusteko, eta jarraitzaileek horrela dela hautemateko, bertan hazitako futbolariak zelairatzea funtsezkoa dela barneratzen dutela hein handi batean. Hala ere, futbol-klubak konplexuak dira izatez, eta areago Euskal Herrian, urtetan etsaitutako ideologiaren arteko bilgune nagusia bihurtu direnean. Nabarmentzekoa da adibidez, Diego Rivas Espainiako futbolari ohiak Realeko zalegoaren alderdi askotan lortutako babes handia, espainiarren kontrako oihuak maiztasunez entzuten baitira estadioan inork asaldura agertzeke, oroz gain Madrilgo taldeen kontrako partidei dagokienez. Hain zuzen ere, joera horrek Yonneten teoria berretsiko luke, hots, jokalariek lehenik eta behin taldearen hautemandako nortasuna islatuko lukeela jarraitzaileen begietara. Michael Billigen teoriak ere azal lezake halaber, hau da, futbol-atxikimenduak funtsik gabekoak edo hutsalak diren itxura ematen dutenez, politika-hauteskundeetan gauzatu daitezkeen aburu politikoekin irudiz lotura ez duten atxikimenduak gerta daitezkeela. Dena dela, Athleticen eta Realaren euskal jokalarien nagusigoa, liga lehiakorren artean kokatutakoa izaki, futbolaren mundu mailako bilakaeraren aurkakoa da, eta euskal identitatearen bereizgarritzat hartu behar da. Aintzat hartu beharrekoa da Espainiako futbol-txapelketen testuingurua ere. Jeremy MacClancy-k dioen moduan (1996), Espainiako futboleko etsaigo historikoa dago Euskal Herria edo Katalunia ordezkatzeko duten futbol-taldeen eta espainiar estatu bateratuaren ordezkari gisara hautemanak diren Real Madril gisako taldeen artean.

Esanguratsua da halaber, Euskal Herriko hegoaldeko bigarren kirol-entzute-tsuenean, saskibaloian, euskal jokalarien lehentasunezko parte-hartzea inondik inora antzematen ez dela ikustea, Baskonian, Bilbao Basketen eta Gipuzkoa Basketen bertako jokalarien parte-hartzearen garrantzia oso murriztekoa izanda. Errugbian, Ipar Euskal Herrian gizarte-ekitaldi gailena den eta herri eta eskualdeetako atxikimenduak bideratzen dituen kirol-aldieran, joera bera gertatzen da. Euskal jokalarien presentzia gutxienekoa da aldi askotan. Txirrindularitzaren adibidea da futbolaren erakoa, Euskaltel Euskadi taldeak bertako kirolarietara Euskal Herriaren ordezkariak egiten baitu nazioartean, askotariko nazio-nortasuneko txirrindulariak dituzten lehen mailako taldeekin alderatuta. 2013an lehenengoz, txirrindulari atzeritarrek ere ari dira taldean, lehen mailako lehiaketetan parte hartu ahal izateko nazioarteko txirrindularitza-elkarteak taldeei gutxieneko garaipen kopurua galdegiten dielako. Ondoriozta daiteke kirolak euskal nazio-nortasuna adierazteko eta bateratzeko duen zeregina berezia dela, inguruko herrialdeekin alderatuz. Nahiz eta Espainiako Ligaren baitan izan, eta klubak arteko lehiaketetan, bertako futbolariak lehenetsita euskal nazio-nortasuna ordezkatzeko ikurrak dira. Bestalde, futbol-zelaiko joko eraz euskal identitatea gauzatzen delako irakurketak murrizten dira gaur egun hedabideen jardunean. Euskal selekzioak jokatzeko duenean ere.

Nazioartean ofizialtasunik ez duen Euskal Selektzioaren ordezkartzaren hutsa betetzen dute hein batean futbol-klubek. Areago, ofizialtasun faltak selektzioaren inguruan ezbaia sortu zuen 2007tik 2010era bitartean, selektzioaren beraren izendapena ere bere gain hartu zuen talka, eta urteroko adiskidantzako partida bertan behera uztera amildu zuena. EAE Euskal Autonomia Erkidegoaren izendapenez kutsatuta dagoen Euskadi deituraren ordezkari, Nafarroa eta mugaz gaindiko euskal hiru probintziak hobeto ordezkatzeko zituzkeen Euskal Herria izendapenaren alde agertu ziren futbolariak. Federazioak hasieran eskaera onartu zuen, baina izena aldatu ere. Baina, politikaren eremuko alderdi politikoen presiopean atzera egin zuen, eta jokalariek ez jokatzeke erabakimena hartu zuten horrenbestez, ofizialtasunean urratsak ez egitekotan ez lehiatzeko mehatxupean. Azkenean Euskal Selektzioa deituraz itzuli zen. EAEko federazioarena den arren, Euskal Herri osoko jokalariz hornitzen da. Ofizialtasun-gabeziak ez ezik, futbol-selektzioa ere hein batean ahultzen dute, futbolaren ordezkartza ahal sinbolikoarengatik ohi denez, politika-norgehiagoken joko-eremu izateak eta nazio-nortasunei buruzko gizarteko ikuspegi kontrajarriek. Hori dela-eta, euskal nazionalismoa gizartean hedatzeko erakustoki eragingarriaren gabezia da. Izan ere, Mike Cronin-ek dioen moduan, beste nazio baten aurkako garaipenak euforia gisakoa eratzen du, nazio-harrotasuna eta norbanakoa taldearen atzean edo kirol izarraren atzean bateratzen du, eta inguruko nazio-kolore, -bandera eta -ereserkiaren baitan (Cronin, 1998: 171). Komunitate imajinatua zilegitzeko sinboloek duten indar eragilea eta hunkigarria aintzat hartuta futbolaren ekarpena berebizikoa da, pilotak, Euskal Herriaren berezko kirol nagusia izanagatik bere gain hartu ezin duen eginkizuna. Nolanahi ere, atxikimenduak elkartzeko ahala duen neurri berean ezberdintzeko gaitasuna du, alderaketan oinarritzen den taldekako jokoa delako. Rafael Benitez espainiar entrenatzailearen hitzetan, Munduko Kopan eta Europako Kopan final laurdenetatik igaro ezinik zegoen espainiar nazio-taldearen eta garaitzea erdietsi zuten Argentina, Brasil, Uruguai eta Frantziaren artean zegoen ezberdintasuna horiek guztiek abertzaletasun-sentipena gehiago barneratuta zutela zen (cfr. Gomez, 2007: 100). Futbolaren eta naziotasunaren ubidea zuzen-zuzena dela adierazten dute futbola ogibide dutenek ere, bistan denez. Hala, Espainiako selektzioa 2008an, 2010ean eta 2012an Europako Kopan birritan eta Munduko Kopan gailendu izana bestalde, batasunezko espainiar nazioaren frogatzat aurkeztua izan zen, Frantzian 1998an plazaratu zen bezala.

Euskal Herriaren adibidea estaturik gabeko nazioen ezinaren isla bada. Nahiz eta estatu-nazioa goitik globalizazioaren eraginpean, eta behetik hurbileneko atxikimenduek erasanda, garrantzia galtzen dagoenaren hautematea zabala baden, nazioarteko futbolak estatu-nazioaren egitura betikotzen du estatuen arteko lehiaketak bultzatuta, edo bederen, estatuen baimenik ez duten nazioei sarrera arbuatuta. Montserrat Guibernau-k (1999: 16) estaturik gabeko nazioen loraldia gertatzen ari dela dio, baina inondik ere estatu-nazioen boterea handia da oraindik, eta kirolek, futbolak oroz gain, eskaintzen duten sinbolo-hornigaia euskarri dutela. Hastapenetik, modernitatearen aroan estatu-nazioaren defentsari lotu zitzaion, horien arteko neurketek ospea ematen ziotelako. Orain, globalizazioak eta aro postmodernoak ustez dena irauli duten garaian ere berdin dirau. Horretan datza euskal selektzioaren arazoak hein batean, baina Euskal Herriak oro har kirolen garrantzia lehenetsi du klub lehiaketetan, bere nazio-izaera aldarrikatzeko.

Ondorioak: kirolik globalena eta nazio-nortasunen biziraupenaren isla

Futbolak nazioaren komunitate imajinatua ezohiko ospakizunen bitartez izate zehatza eta hautemangarria izan dadin ahalbidetzen du nazioarteko lehiaketan eremuan. Alderaketek eta lehiak inguratutako sinbolo multzoek, hedabideen eta bereziki telebistaren laguntzaz, nazioaren ezberdintasunak gainditzeko ahalbidea ematen dute. Nahiz eta kirol globalena izan, nazio-adierazpenen zaindaria bitarteko nagusietakoa bailitzan har daiteke. Hala, estatu-nazioetan adibidez, lehengo ekonomia-burujabetza galdua izan bada, eta berezko izatea adierazten duten sinbolo gero eta bakanagoak daudenean, futbol nazio-taldea ikur gailenetakoa da.

Hala ere, Raffaele Polik ondorioztatu zuen moduan, futbol garaikideak adierazi du estatu-nazioen eraikuntza bultzatu zuen nazioaren ideia homogeneoarekin kontrajarri den eraldaketa, nazioaren ikuspegi pluralagoaren bidean (Poli, 2004). Integrazioa asimilazioarekin lotua da maiz ordea, Australian etorkinen oinordetza adierazten duten taldeei ezarritako betebeharez gertatu zenez. Nazio-nortasunak agertzeko duen indarraren adierazle da, herrialdearen batasuna arriskuan jartzearaino eragingarria dela hautematen dena, duen indar sinbolikoagatik. Hain da garrantzitsua ezen herrialde batzuetan herritartasuna emateko nazioaren ezagutza galdegitean kirolari buruzko jakinduria ere eskatzen duten. Kirolari aniztasunari dagokionez egin dakioken kritika da, eta nazioa irudikatzeaz duen muga da, gizotasunean errotutako lehiaketa izaten jarraitzen duela oroz gain. Emakumezkoak futbol-estadioetan nahiz ikus-entzulerian gizonen mailara hurbiltzen ari badira ere, gizonezkoen multzoan oinarritutako gizabanakoen komunitatea da 11 jokalarien multzoak hezurmamtzen duena. Alabaina, horrek ez du adierazi nahi nazioaren ideia plazaratzeko ondasun adierazgarriena ez denik, baizik eta inguruko gizarte-egituren usadioak, estatu-nazioena nahiz gizonezkoen hegemoniarena, betikotu egiten dituela.

Bibliografia

- Anderson, B. (1991): *Imagined Communities: Reflections on the Origin and Spread of Nationalism*, Verso, Londres eta New York.
- Billig, M. (1995): *Banal nationalism*, SAGE publications, Londres.
- Boniface, P. (1999): "Geopolítica del fútbol", in S. Seguro (arg), *Fútbol y pasiones políticas*, Debate, Madril, 89-96.
- , (2002): *La Terre est ronde comme un ballon: Géopolitique du football*, Seuil, Paris.
- Brochand, P. (1998) "Economie, diplomatie et football", in P. Boniface (arg), *Géopolitique du football*, Éditions Complexe, Brusela (Belgika), 73-80.
- Bromberger, C. (1998): *Football, bagatelle plus sérieuse du monde*, Bayard Éditions, Paris.
- , (2001): *Significaciones de la pasión popular por los clubes de fútbol*, Libros del Rojas, Universidad de Buenos Aires, Buenos Aires (Argentina).
- Calhoun, C. (1991): "Indirect Relationships and Imagined Communities: Large-Scale Social Integration and the Transformation of Everyday Life", in P. Bourdieu eta J.S. Coleman (arg), *Social Theory for a Changing Society*, Russell Sage Foundation, Boulder, Colorado (AEB), 95-121.

- Cronin, M. (1998): "When the World Soccer Cup is Played on Roller Skates: The Attempt to Make Gaelic Games International: The Meath-Australia matches of 1967-68", in M. Cronin eta D. Mayall (arg), *Sporting Nationalisms: Identity, Ethnicity, Immigration and Assimilation*, Frank Cass, Londres, Portland (Oregon, AEB), 170-188.
- Darbon, S. (2008): *Diffusion des sports et impérialisme anglo-saxon: De l'histoire événementielle à l'anthropologie*, Éditions Maison des Sciences de l'Homme, Paris.
- Dauncey, H. eta Hare, G. (1999): *France and the 1998 World Cup: The National Impact of a World Sporting Event*, Frank Cass, Londres.
- Dietschy, P. (2011): "Les avatars de l' équipe nationale: Football, nation et politique depuis la fin du 19ème siècle", *Vingtième Siècle Revue d' Histoire*, **111**, 35-47.
- Gardiner, S. eta Welch, R. (2011): "Nationality quotas in European football", in R. Guillaume (arg), *Football, Europe et Régulations*, Presses Universitaires du Septentrion, Lille (Frantzia), 151-164.
- Gellner, E. (2009): *Nazioak eta nazionalismoa*, Klasikoak, Bilbo.
- Gethard, G. (2006): "How Soccer Explains Post-War Germany", *Soccer and Society*, **7**, 51-61.
- Gomez, D. (2007): *La Patria del gol: Fútbol y política en el Estado español*, Alberdania, Irun.
- Giulianotti, R. eta Robertson, R. (2009): *Globalization and football*, Sage publications, Londres.
- Guibernau, M. (1999): *Nations without States: Political Communities in a Global Age*, Polity Press, Cambridge.
- Habermas, J. (1998): *Identidades nacionales y postnacionales*, Tecnos, Madril.
- Hallinan, C. eta Hughson, J. (2009): "The beautiful game in Howard's 'Brutopia': football, ethnicity and citizenship in Australia", *Soccer and Society*, **10**, 1-8.
- Hobsbawm, E. eta Ranger, T. (1983): *The Invention of Tradition*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Hobsbawm, E. (1992): *Nations and nationalism since 1780: Programme, myth, reality*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Horne, J. D. eta Manzenreiter, W. (2004): "Accounting for Mega-Events : Forecast and Actual Impacts of the 2002 Football World Cup Finals on the Host Countries Japan/Korea", *International Review for the Sociology of Sport*, **39**, 187-203.
- Hroch, M. (2000): *Social Preconditions of National Revival in Europe: A Comparative Analysis of the Social Composition of Patriotic Groups Among the Smaller European Nations*, Columbia University Press, New York.
- Hughson, J. (1997): "The Bad Blue Boys and the 'Magical Recovery' of John Clarke", in G. Armstrong eta R. Giulianotti (arg), *Entering the Field: New Perspectives on World Football*, Berg, Oxford eta New York, 239-259.
- Jarvie, G. (2006): *Sport, Culture and Society: An Introduction*, Routledge, Londres eta New York.
- Kirsch, T. (2008): "Sports Globalization and Cultural Diversity in TV: Global and Local Trends in the Relationship between Sports and Television".
- Kymlicka, W. (2003): *La Política Vernácula: Nacionalismo, Multiculturalismo y Ciudadanía*, Paidós, Bartzelona.
- Leite Lopes, J. S. (1997): "Successes and Contradictions in 'Multiracial' Brazilian Football", in G. Armstrong eta R. Giulianotti (arg), *Entering the Field: New Perspectives on World Football*, Berg, Oxford eta New York, 53-86.
- MacClancy, J. (1996): "Nationalism at Play: The Basques of Vizcaya and Athletic Bilbao", in J. MacClancy (arg), *Sport, Identity and Ethnicity*, Oxford.

- Marivoet, S. (2006): "UEFA Euro 2004 TM Portugal. The Social construction of a sports mega-event and spectacle", in J. Horne eta W. Manzenreiter (arg), *Sports Mega-Events: Social Scientific Analyses of a Global Phenomenon*, Blackwell, Malden (Amerikako Estatu Batuak) eta Oxford (Erresuma Batua) eta Victoria (Australia), 127-143.
- Mason, T. (2006): "England 1966: Traditional and Modern?", in A. Tomlinson eta C. Young (arg), *National Identity and Global Sports Events: Culture, Politics and Spectacle in the Olympics and the Football World Cup*, State University of New York Press, New York, 83-98.
- McKeever, L. (1999): "Reporting the World Cup: Old and New Media", in H. Dauncey eta G. Hare (arg), *France and the 1998 World Cup: The National Impact of a World Sporting Event*, Frank Cass, Londres, 161-183.
- Moorhouse, H. F. (1996): "One State, Several Countries: Soccer and Nationality in a 'United' Kingdom", in J. A. Mangan (arg), *Tribal Identities: Nationalism, Europe, Sport*, Frank Cass, Londres eta Portland (Oregon, AEB), 55-74.
- Natali, M. (2007): "The Realm of the Possible: Remembering Brazilian *Futebol*", *Soccer and Society*, **8**, 267-282.
- Poli, R. (2004): "L' Europe a travers le prisme du football. Nouvelles frontières circulatoires et redéfinition de la nation", *European Journal of Geography*.
- Pons, A. (2003): "El mejor equipo del mundo: Estereotipos y paradojas", in *El fútbol o la vida*, Col·legi Major Rector Peset-Departament d' Història Contemporània / Universitat de València, València, 71-86.
- Schrag, D. (2009): "'Flagging the Nation' in International Sport: A Chinese Olympics and a German World Cup", *The International Journal of the History of Sport*, **26**, 1084-1104.
- Smith, A. D. (2009): *Ethno-symbolism and Nationalism: A cultural approach*, Routledge, Londres, New York.
- Yonnet, P. (2010): *Une main en trop: Mesures et démesure un état du football*, Éditions de Fallois, Paris.

